

## GOGOAN HARTU

Zerbait goaz esatera sermoilarien antzera kontseju batzuk zabalduz atsotitz ta esaera premiarik baldin bada hemen duzue aukera.

Udaberrian mendian piztiak baso erdian urte ona nahi baduzu dirua eraman gainian hala dio esaerak kukua kantuz danian.

Bi emakume sukaldian ta hiru botila poltsian ez dira ixilik egongo batean dauden artian bakezalea bazera etzaitez sartu tartian.

Prailearentzat dozana beretzat hamairu dena horren alde joka ezazu nahi badezu garaipena tontuak ez dute izaten zeruan sartzeko baimena.

## HISTORI OKERRA

Kontatutzeroa noa histori ederra inork jakin nahi badu hau gauza okerra soldaduska eginda probatu dut gerra.

Han ginen euskaldunak andaluz ta maño bakoitzak bereari eutsiaz gaurdaino nortasuna okertzen jardun dira baino.

Uniforme berde ta oinetako beltzak jenio aparta zuen hango alferezak defenditu ditugu noren interesak.

Igandero mezeta ta «Misa del gallo» euskaldun basallo lehen oilarrak baginen orain gara ollo.

Urte bete pasa dugu kolperik jo gabe diru asko ez dugu sobratuta gorde etxean gelditzea ez al genuen hobe?



eta..



# JO ETA HAUTSI

## SOINUAK DUENA

Egunez eguneko gauean gaueko ez gabiltz ondo baina nahi baino hobeto kantatzen dugu zuek ongi izateko bestela ez ginaden ohetik jaikiko.

Ilargiak atzetik darama iluna goizean jeikitzean laino zen eguna kantatzen hasi eta argitu da dena zer ote da maitea soinuak duena.

## GURASOAK EUSKARAZ

Gaurko egoera xelebrea da beraz (bis) penatzen naiz guraso askoren joeraz kalean gora euskadi etxean erderaz.

Gurasoei nahi nieke adierazi (bis) lehengo lege zaharreen zuen haurrak hazi sehaskan ez zenuten erderaz ikasi.

Fruitua etortzen da hazia ereinda (bis) semeak ez badaki, erruduna zein den nola ikasi zuek erderaz eginda.

Hizkuntzak asko dira mundu zabalean (bis) bat behintzat gorde dezagun modu apalean amak erakutsia bere magalean.

Guk behintzat maite degu jaio ginanetik (bis) mundu hontara sortu ginan egunetik ama euskera gauza guzien gainetik.

## TRIKITILARIAK OMEN GARA

Trikitilariak gera beste askoren antzera doinu alaiak zabalduz gabiltz gutxi gorabehera apustu batean sartuak nonbait lehengo era zaharrera muturjoka ibilita ezin da segi aurrera.

Nahiz txikitatikan ekin zahartuko gerade berdin trikiti hotsa jo baina denok dakigun malezin goizean goiz jeiki eta itzultzen gara gauerdin umore ona dugu baina irrifarra sortu ezin.

Gazteak datoz atzetik ta zaharrak gure aurretik baina galduta gabiltza bakoitza bere bidetik lehiaketak egunero dauzkagu aldamenetik hau erakutsi digute jaio ginen egunetik.

Taberna, kale ta plazan sartzen gara non nahi saltsan gure ondoan edonor alaitzeko esperantzan baina giroa ote dan aldatu nago zalantzan juergarako sortu gara ta hasi zaitezke dantzan.